



INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN ETA DIBERTSITATE FUNTZIONALA DUTEN EMAKUMEEN KASUETAN ESKU HARTZEKO GOMENDIOAK

2017ko azaroa

AURKIBIDEA

1	TESTUINGURUA	3
2	EMAKUMEEN ETA DIBERTSITATE FUNTZIONALAREN AURKAKO INDARKERIAREN ESPARRU INTEGRATZAILEA, BIZIMODU INDEPENDENTE BATERA ORIENTATUTA DAGOENA, GIZA ESKUBIDEEN, GENEROAREN ETA DIBERTSITATE FUNTZIONALAREN IKUSPUNTU HIRUKOITZETIK ABIATUTA.....	9
2.1	Ikuspegia.....	9
2.2	Erreferentziako arauak eta dokumentuak.....	10
2.3	Legeriaren aplikazioari buruzko gogoetak.....	18
3	EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA JASATEKO ARRISKUA AREAGOTZEN DUTEN FAKTOREAK.....	19
3.1	Oro har, desgaitasun guztientzat	19
3.2	Espezifikoak.....	20
4	GOMENDIOAK.....	25
4.1	Desgaitasun guztietan, oro har	25
4.2	Espezifikoak.....	31

1 TESTUINGURUA

Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren emakumeen % 11,5ek mendekotasun edo mugaren bat dute, 2014ko *Gizarte Zerbitzuen Eskariaren Estatistika (GZEE) / Gizarte Premiei buruzko Inkesta (GPI)*¹ren arabera. Ehuneko hori 2014ko udal-eroldara estrapolatzen bada, guztira 129.100 emakume dira; alegia, mugaren bat duten pertsonen % 54,5. Emakume horien artean, % 34,4k mendekotasun arina, larria edo erabatekoa dute, eta ehuneko hori 5 puntu hazi da 2006tik. Prebalentzia-tasa guztiak jaitsi dira gizonen kasuan: gizonen % 10,3k – 109.836– mendekotasun edo mugaren bat dauka, eta, ostera, gutxienez mendekotasun-egoera moderatua dauden gizonen ehunekoa % 18,1ekoa da; egoera horretan dauden emakumeen ia erdia, alegia. Gainera, aipatu bezala, mendekotasun-maila handienak dituzten emakumeen ehunekoa nabarmen hazi da, eta gizonena, aldiz, ia 3 puntu jaitsi da 2006tik.

Mundu mailan, kalkulatzen da mila milioitik gora pertsonak dutela desgaitasunen bat; hau da, munduko biztanleriaren % 15ak gutxi gorabehera. Zifra horrek Osasunaren Mundu Erakundeak 1970eko hamarkadan egindako kalkuluak gaituzten ditu, desgaitasunen bat zutenak % 10 zirela kalkulatu baitzuen momentu hartan.

Munduko Osasun Inkestaren arabera, 15 urteko edo gehiagoko 785 bat milioi pertsona (% 15,6) bizi dira desgaitasunen batekin. Aldiz, *Munduko morbiditate-karga* izeneko proiektuaren arabera, ia 975 milioi dira (% 19,4). *Munduko Osasun Inkestaren* arabera, desgaitasuna duten pertsona guztietatik, 110 milioi (% 2,2) oso zailtasun nabarmenak dituzte funtzionatzeko, eta *Munduko morbiditate-karga* proiektuaren arabera, 190 milioi pertsonak (% 3,8) dute «desgaitasun larriren bat» (tetraplegia, depresio larria edo itsutasunaren afekzioen pareko desgaitasunak). *Munduko morbiditate-karga* da haurren (0-14 urte) desgaitasunak kalkulatzen dituen ikerketa

¹ http://www.euskadi.eus/web01-s2enple/eu/contenidos/estadistica/epds2014_tablas_estadisticas/eu_tblestad/tablas_est_oferta.html

bakarra, eta honako datu hauek ematen ditu: 95 milioi (% 5,1) haur inguruk dute desgaitasunen bat, eta horietatik 13 milioi (% 0,7) «desgaitasun larri» bat dute².

Espanian, desgaitasunen bat duten pertsonen % 59,8 emakumeak dira jada. Adinaren arabera desgaitasun-tasei erreparatuta, apur bat altuagoak dira gizonezkoen kasuan 44 urtekoen multzora arte, eta 45 urtekoen multzotik aurrera egoera alderantzikatu eta desberdintasun hori handituz doa adina ere handitzen doan heinean, *Ezintasun, Autonomia Pertsonal eta Mendekotasun Egoeren Inkestaren arabera* (EIN, 2008).

Dibertsitate funtzionala duten emakumeen ehunekoa handia da emakumeen guztirako biztanleriaren gainean, eta, hala ere, EAEn ez da ikerketarik egin, emakume horiek sufritzen duten indarkeriaren eragina kuantifikatzeko. Estatu mailan, **Emakumeen aurkako indarkeriaren makroinkesta 2015**³ azterlanak kapitulu oso bat eskaintzen die desgaitasuna duten emakumeei. Dena dela, egoera horretan dauden emakumeen % 4,5 baino ez zituzten elkarrizketatu, eta zifra hori oso urruti dago zifra errealetik⁴. Gainera, talde horretan desgaitasun-ziurtagiriren bat duten emakumeak bakarrik sartu zituzten. Gainera, landa-lanean ez da entzumen-desgaitasuna duten emakumeek parte hartzea ahalbidetuko lukeen egokitzapenik erabili, eta galdetegia ez dago irakurketa errazeko formatu batera egokituta, ikusmen-desgaitasuna duten emakumeek parte har dezaten. Horrez gain, ez da inolako neurririk hartu laginean desgaitasun-maila altuak dituzten emakumeak sartzeko, eta horiexek dira, hain zuzen, indarkeria-egoerak jasateko arrisku objektibo handiagoa dutenak. Horregatik guztiagatik, makroinkestak ematen dituen datuak dibertsitate funtzionala duten emakumeen aurkako indarkeriaren fenomenoaren izozmendiaren punta baino ez dira.

Aipatutako guztia aintzat hartuta, ikerketa horrek ondorioztatzen du desgaitasun-ziurtagiria duten emakumeek, hau da, % 33k baino gehiagok, gainerako emakumeek baino prebalentzia handiagoa dutela bikote-harremanetan bizi daitekeen edozein indarkeria-egoera jasateko, bai orain bai bizitza osoan zehar. Hala, desgaitasuna egiaztatuta duten eta bikote-harremanak izan dituzten emakumeen % 16,8k pairatu du **indarkeria fisikoa** harreman horretan momenturen batean. Gainerako emakumeen kasuan, ehuneko hori % 10,4koa da. Kasu

² Desgaitasunari buruzko munduko txostena. Osasunaren Mundu Erakundea, 2011.

³ http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/estudios/colecciones/pdf/Libro_22_Macroencuesta2015.pdf

⁴ Desgaitasunari, autonomia pertsonalari eta mendekotasun-egoerei buruzko inkestaren arabera (ADINA, EIN, 2008), Espainiako emakumeek % 10,63ko desgaitasun-tasa dute, eta gizonek, aldiz, % 7,26koa.

horietan, bereziki asaldagarria da indarkeria fisiko larria jasan duten emakumeen ehuneko altua⁵: desgaitasuna egiaztatuta duten 100 emakumetik 12k pairatu dute indarkeria fisiko larria, eta ehuneko horrek bikoiztu egiten du gainerako emakumeena (% 6,4).

Makroinkestak agerian uzten du, halaber, desgaitasunen bat izateak ia bikoiztu egiten duela **sexu-indarkeria** jasateko arriskua: desgaitasun-ziurtagiria duten inkestatuen % 14,7 bere bikotekideen edo bikotekide ohien sexu-indarkeriaren biktima izan da noizbait. Ehuneko hori % 8,1era jaisten da ziurtagiria ez duten emakumeen artean. Gainera, ikerketa-txosten horretan batera aztertu dira indarkeria fisikoaren eta/edo sexualaren prebalentzia bizitza osoan zehar: prebalentzia hori % 21,1era iristen da desgaitasuna egiaztatuta duten emakumeen kasuan, eta % 12,6ra ziurtagiririk ez dutenen kasuan.

Indarkeria psikologikoari dagokionez, desgaitasun-ziurtagiria duten emakumeen % 30,6k esan dute bikotekideek kontrolatu egin dituztela momenturen batean, eta % 31,5ek esan dute ahozko mehatxuak, irainak, mespretxu publikoak edo larderia jasan dituztela bikotekidearengandik edo bikotekide ohiengandik. Gainerako emakumeen kasuan, % 26,1ek eta % 22,3k adierazi dute hori, hurrenez hurren. Era berean, bikotekidearen beldur izan den emakumeen ehunekoa nabarmen altuagoa da desgaitasun-ziurtagiria duten emakumeen artean (% 19,9) ziurtagiri hori ez duten emakumeen artean baino (% 13,1). Azkenik, arraila garrantzitsua dago ekonomikoki biktimizatu diren emakumeen proportzioan ere; izan ere, desgaitasuna egiaztatuta duten emakumeen % 18,5ek jasan dute mota horretako indarkeria noizbait beren bizitzetan, eta gainerako emakumeen kasuan, ehuneko hori murriztu egiten da % 10,8ra arte.

Interesgarria da atal honetan aipatzea osasun metaleko gaixotasunak dituzten emakumeen aurkako indarkeriaren prebalentzia-datuak. Madrilgo Erkidegoan⁶ bi ikerketa egin dira gai horren harira, eta datuak kezkarriak dira:

⁵Indarkeria fisiko larria: «ukabilaz edo min eman dezakeen beste zerbaitekin kolpatzea»; «ostikadak ematea, arrastan eramatea edo kolpatzea»; «berariaz saiatzeari itotzen edo erredurak egiten» eta «zure aurka pistola bat, aizto bat edo armaren bat erabiltzeko mehatxua egitea».

⁶Jarraian ematen diren datuak hemendik daude aterata: Francisco González Aguadok, Juan González Casesek, Marisa López Gironésekin, Daniel Olivares Zarcok, Cristina Polo Usaolak eta Margarita Rullas Trincadok egindako *Violencia familiar y de pareja hacia las mujeres con trastorno mental grave* (2013) izeneko azterlanetik:

<https://consaludmental.org/publicaciones/Violenciಾಮujeresenfermedadmental.pdf>, eta Juan Carlos González

Casesen *Violencia en la pareja hacia mujeres con trastorno mental grave* (2011) doktore-tesitik:

http://dspace.uah.es/dspace/bitstream/handle/10017/15082/Violencia_pareja_mujer_trastorno_mental_grave_Juan_C_Gonzalez_Cases_2011.pdf?sequence=1&isAllowed=y

gaixotasun mental larria (GML) duten eta beren bizitzan zehar bikotekideren bat izan duten emakumeen % 80 inguruk jasan dute pertsona horrek egindako indarkeria, horien erdiak baino gehiagok indarkeria fisikoa sufritu dute eta % 40 baino apur bat gehiago sexu-indarkeriaren biktima izan dira. Bi ikerketa horiek kuantifikatu dute gaixotasun mental larria duen emakume batek bikote-harremanetan indarkeria sufritzeko duen arriskua 2 eta 4 aldiz handiagoa dela gainerako emakumeek duten arriskua baino. Errealitate horren gordintasuna bat dator biztanle talde hori artatzen duten zerbitzuen barruan duten ikusezintasunarekin; izan ere, azken urtean egon diren indarkeria-kasuen erdian, osasun mentalaren sareko emakumearen erreferentziako profesionalak ez zuen tratatu txar horien inguruko informaziorik. Ikerketa horiek identifikatu dute, halaber, GML duten eta bikote-harremanetan indarkeria jasaten ari diren emakumeen % 40 baino gehiagok ez duela hori indarkeria gisa identifikatu. Gainera, gaixotasun mental larri bat izateak nabarmen handitzen du familia barruko indarkeria jasateko arriskua: hala, GML duten eta senitartekoekin bizi diren emakumeen % 52 indarkeriaren biktima izan dira azken urtean.

Badago interesgarria den beste azterketa kuantitatibo bat, Granadako Udalak 2011n egin zuena: **Estudio sobre Violencia de Género en Mujeres con Discapacidad Física y/o Sensorial en Granada**⁷. Emakumeen aurkako indarkeriaren makroinkestak lanaren metodologia berari jarraikiz, Granadako Udalaren azterlanak ondorioztatzen du elkarriketatutako emakumeen % 24,8k beren bikotekideen edo bikotekide ohien indarkeria tekniko jasaten dutela edo jasan dutela beren bizitzetan zehar. Ikerketak zehazten du ikusmen-desgaitasuna duten emakumeek –bikote-harremanetan % 31,1ek jasan dute indarkeria beren bizitzan zehar– eta desgaitasun fisikoa duten emakumeek –prebalentzia % 33,3ra iristen da kasu

7

[http://www.granada.org/inet/wmujer8.nsf/e9425ddf1eaded5dc12573f00041ee60/1fc10dd64a360f35c12579f80028ad60/\\$FILE/Informe%20violencia%20y%20discapacidad%20C.pdf](http://www.granada.org/inet/wmujer8.nsf/e9425ddf1eaded5dc12573f00041ee60/1fc10dd64a360f35c12579f80028ad60/$FILE/Informe%20violencia%20y%20discapacidad%20C.pdf)

horretan— gehiago jasaten dutela indarkeria bikote-harremanaren barruan entzumen-desgaitasuna duten emakumeek baino. Azken kasu horretan, emakumeen % 10,2 izan dira indarkeriaren biktima⁸. Horrez gain, teknikoki tratu txarren biktima izan diren eta tratu txarrak onartzen dituzten emakumeen ehunekoaren arteko ezberdintasuna aztertzen du ikerketa horrek, eta garrantzitsua da hori. Zentzu horretan, ez zen ezberdintasun handirik hauteman desgaitasun fisikoak eta entzumen-desgaitasunak dituzten emakumeen artean, baina ikusmen-desgaitasuna duten eta teknikoki tratu txarrak jasan dituzten emakumeen % 21,54k ez dute onartzen tratu txarren biktima izan direnik.

Azkenik, batez ere desgaitasun fisikoa eta organikoa duten Andaluziako emakumeekin egindako beste ikerketa batek, ***Autodiagnóstico de la situación de las Mujeres con Discapacidad en Andalucía***⁹, ondorioztatzen du 1.115 emakumeko lagin handi batetik abiatuz, horietatik % 31k jasan zuela indarkeria fisikoa, psikologikoa edo sexuala bikote-harremanen barruan, familian edo egoitza- edo ospitale-erakundeetan. Kasu horien % 45ean, erasotzailea bikotekidea edo bikotekide ohia zen.

Aipatutako ikerketa horiez gain, autonomia-erkidegoan eta estatuan ez dago oro har dibertsitate funtzionala duten emakumeen aurkako indarkeriaren eraginari buruzko beste ikerketa kuantitatiborik, ezta desgaitasun mota zehatzei buruzkorik ere. Europa osoa barne hartzeko xedea zuen ikerketa kuantitatibo bat egiten hasi zen Once elkarteak 2002an Europar Batasuneko¹⁰ Daphne proiektuaren esparruan. Espainiaren kasuan, Once elkartean afiliatutako 2.100 emakumek erantzun zioten indarkeriaren gaineko galdetegiari, baina ikerketaren xede izan

⁸ Datu hau zuhurtziaz interpretatu behar da; izan ere, emakume gorrek zailtasun handiak dituzte indarkeria-egoerak identifikatu eta komunikatzeko. *Estudio de Investigación sobre la violencia de la mujer sorda en la CAV* (2015) izeneko doktore-tesiaren egile eta Bilboko ESiko La Peña Osasun Zentroko erizain Socorro Luengoren hitzetan, emakume gorrek «denbora luzeagoz pairatzen dituzte tratu txarrak baliabide- eta laguntza-falta dutelako». Ildo horretan, badago Pertsona Gorren Estatuko Konfederazioak egindako beste ikerketa bat: *Situación de las mujeres sordas ante la violencia de género*: http://www.cnse.es/uploaded/publicaciones/violencia_genero.pdf

⁹ Berdintasunerako eta Gizarte Ongizatearen Saila. Andaluziako Junta, 2011.
http://www.juntadeandalucia.es/export/drupaljda/Personas_Discapacidad_plan_mujer_Autodiagnostico_Discapacidad_Andalucia-1.pdf

¹⁰ Genero-indarkeriaren aurkako Oneren eta bere fundazioaren estrategia.

ziren gainerako estatuetan ez zen ikusmen-desgaitasuna duten emakumeen erantzun kopuru nahikorik lortu, eta gaur-gaurkoz ez da emaitzarik eman argitara¹¹.

Cermi Mujeres Fundazioa ere zentzu horretan mintzatu zen ***Informe sobre violencia de género hacia las mujeres con discapacidad a partir de la Macroencuesta 2015***¹² izeneko azterlanean. Bertan, berrikusi egin zituzten desgaitasuna duten emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan egindako ikerlan guztiak. Testu horretan adierazten da oraindik ez dela egin «biztanleria-azterketa zehatzik desgaitasuna duten emakumeei eta neskei buruz», eta, beraz, «ondoriozta daiteke desgaitasuna duten emakumeek jasaten duten genero-indarkeriari buruzko datu epidemiologikoak desgaitasuna aldagai gisa planteatzen duten inkesta orokorretatik eskuratzen direla».

Nazioartean, *Desgaitasuna duten emakumeei buruzko Europako Parlamentuaren 2013ko urriaren 14ko txostenaren*¹³ arabera, badaude zenbait kalkulu agerian uzten dutenak desgaitasuna duten emakumeek abusuen biktima izateko duten probabilitatea 1,5 eta 10 aldiz handiagoa dela desgaitasunik ez duten emakumeen aldean. Horrez gain, *Desgaitasuna duten Europar Batasuneko emakumeen egoerari buruzko Europako Parlamentuaren txostenak* (2007) ere honako hau ohartarazi zuen: «Desgaitasuna duten emakumeen % 80 indarkeria psikologikoaren eta fisikoaren biktima dira, eta sexu-izaerako indarkeria-egintzen biktima izateko duten arriskua beste emakume batzuen baino handiagoa da».

¹¹ Oncek 2014ko ekainaren 12an aurkeztu zuen *Mujeres afiliadas a la ONCE ante la violencia de género: manifestaciones de una realidad oculta* azterketa kualitatiboa.

¹² http://www.fundacioncermimujeres.es/sites/default/files/informe_sobre_violencia_de_genero_2.pdf

¹³ <http://www.europarl.europa.eu/sides/getDoc.do?pubRef=-//EP//TEXT+REPORT+A7-2013-0329+0+DOC+XML+V0//ES>

2 EMAKUMEEN ETA DIBERTSITATE FUNTZIONALAREN AURKAKO INDARKERIAREN ESPARRU INTEGRATZAILEA, BIZIMODU INDEPENDENTE BATERA ORIENTATUTA DAGOENA, GIZA ESKUBIDEEN, GENEROAREN ETA DIBERTSITATE FUNTZIONALAREN IKUSPUNTU HIRUKOITZETIK ABIATUTA

2.1 IKUSPEGIA

*Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakundearteko II. Akordioaren*ren esparruan, 2015eko irailaren 29ko saioan, Erakundearteko Talde Teknikoak (ETT) eremu integratzaile bat eratzeke beharra identifikatu zuen, giza eskubideak, generoa eta desgaitasuna ikuspuntu hirukoitz modura integra daitezen eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloan egiten diren politikak eta zerbitzuak emakumeentzat eta neskentzat pentsatuta egon daitezen, eta, halaber, barnean har ditzan desgaitasunak dituzten emakumeen berezitasunak eta posizioak, **kolektibo horri zuzendutako jarduketak ia eskusiboki gizarteratze-arloetan zentratuta egon ez daitezen.**

Emakumeen aurkako indarkeria diskriminazio mota bat eta giza eskubideen urraketa bat da. Gainera, horri genero-aldagaia gehitzen bazaio eta desgaitasunarekin gurutzatzen bada, emaitza indarkeriaren biktima izateko askoz ere probabilitate handiagoa duen kolektibo bat da, estatuko eta nazioarteko hainbat organismok aitortzen dutenaren arabera. Aurrerago ikusiko dugu hori. Dokumentu honetan, **Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoaren txostenak** esplizituki dioena izango dugu abiapuntu. **Emakumeen eta nesken aurkako indarkeriari eta desgaitasunari buruzko azterketa tematikoa**¹⁴ (Nazio Batuak, 2012). Ikerketa horren arabera, desgaitasuna duten emakumeen aurkako indarkeriari «emakumeek sistema patriarkalean duten mendekotasun-egoera orokorretik» heldu behar zaio, eta «biktimizazioan oinarritutako ikuspuntu batetik ahalduztzean oinarritutako ikuspuntu batera» aldatzearen alde egiten du apustu. Ikuspuntu horrek «barne hartuko ditu

¹⁴ http://www.ohchr.org/Documents/HRBodies/HRCouncil/RegularSession/Session20/A-HRC-20-5_sp.pdf

hezkuntza, osasuna eta sexuen arteko berdintasuna, Estatuak emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eginbidez jarduteko betebeharraren barruko gomendioen esparruan».

Ahalduntzea desgaitasuna duten emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko bide gisa planteatzen duen kontzeptzioa bat dator bizitza independentearen munduko filosofiarekin. Horixe da, hain zuzen, dibertsitate funtzionalaren inguruko pentsamendu teoriko eta praktikoa berria. Azken finean, Soledad Arnauk¹⁵ azaltzen duen bezalaxe, desgaitasuna duten emakumeen artean bizitza independenterako proiektuak sustatzean datza. Filosofia horren arabera, dibertsitate funtzionala duten emakumeek eta gizonek aldarrikatu egiten dute komunitatean modu aktiboan eta independentean bizitzeko eskubide indibidual eta kolektiboa, horretarako behar dituzten giza laguntza guztiekin, hau da, laguntza pertsonala jasoz laguntza behar dutenean, eta uko egiten diote instituzionalizazioa bizimodutzat hartzeari.

2.2 ERREFERENTZIAKO ARAUAK ETA DOKUMENTUAK

Jarraian dibertsitate funtzionala duten emakumeen aurkako indarkeriaren arloan aplikagarria den araudiaren laburpena eta gai horretako erreferentziako dokumentuak aurkeztuko ditugu. Azken horiek esparruka taldekatu ditugu: nazioartekoak, estatukoak eta autonomia-erkidegokoak.

A. NAZIOARTEKOAK

1. Nazio Batuek 1993ko *Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeari buruzko adierazpenaren* 1. artikuluan honela kontzeptualizatzen dute emakumeen aurkako indarkeria: «Emakumezkoa izateagatik emakumearentzako kalte edo sufrimendu fisiko, sexual edo psikologikoa eragiten duen edo eragin dezakeen edozein indarkeria-ekintza, baita ekintza horien mehatxuak, bortxaketa edo askatasuna arbitrarioki kentzea ere, bizitza publikoan nahiz pribatuan».

¹⁵ Soledad Arnau Foro de Vida Independienteko kide da <http://forovida independiente.org/filosofia-de-vida-independiente/>

2. Bestalde, *CEDAW*ren 1979ko *Emakumeen aurkako diskriminazio era guztiak ezabatzeari buruzko konbentzioak* emakumeak era absolutuan eta inolako salbuespenik gabe sartzen ditu Protokolo Gehigarrian, barne hartuta beren desgaitasunagatik diskriminazioaren biktima diren eta dibertsitate funtzionala duten emakumeak. Espainiak 1983an berretsi zuzen konbentzio hori.

3. 2006ko abenduan, *Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioa eta haren protokolo fakultatiboa* onetsi zen. Espainiak 2008ko martxoan berretsi zuen, eta erabat aplikagarria da Espainian 2008ko maiatzaren 3tik aurrera. Beranduago, 2010eko azaroaren 26an, Europar Batasuneko Kontseilua Konbentzioa berrestearen alde agertu zen. Lehen aldiz adostu zen Europar Batasuna erakunde gisa sartzea estatu kide guztientzat lotesle bihurtuko den giza eskubideei buruzko nazioarteko erabaki batean.

Gainera, lehen aldiz historian onartu zen desgaitasuna duten pertsonen eskubideen gaineko nazioarteko tratatu bat giza eskubideen nazioarteko babesaren araubide juridikoaren testuinguruan juridikoki loteslea den hitzarmen baten bitartez. Hitzaurrean (zehazki, q letran) jasotzen du emakumeek eta neskek «arrisku handiagoa izan ohi dutela etxean nahiz etxetik kanpo indarkeria, lesioak, abusuak, abandonua edo zabarkeriazko tratua, tratu txarrak edo esplotazioa jasateko, eta diskriminazio forma ugari pairatzen dituztela». Gainera, azpimarratzen du genero-ikuspegia txertatu behar dela giza eskubide eta askatasun guztiak bere osoan baliaraztea sustatzeko jarduketa guztietan (Hitzaurrea, s atala).

Era berean, hau ezartzen du 5. artikuluan: «Estatu partaideek desgaitasun-arrazoen ondorioz egindako diskriminazio oro debekatuko dute, eta pertsona desgaitu guztiei bermatuko diete legearen babes eraginkor bera, edozein arrazoitan oinarritutako bereizkeriaren aurka». Eta 6. artikuluan:

«1. Estatu alderdiek aitortzen dute emakume eta haur desgaituek diskriminazio mota anitz jasan dezaketela eta, horrenbestez, neurriak hartuko dituzte ziurtatzeko halakoek giza eskubide eta oinarrizko askatasun guztiak oso-osoan eta berdintasun-baldintzetan baliatu ahal izatea.

2. Estatu alderdiek egoki diren neurri guztiak hartuko dituzte, emakumearen erabateko garapena, aurrerapena eta indartzea ziurtatzeko, asmoa izanik bermeak ezartzea, konbentzio honetan ezarritako giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak egikari edo balia ditzan».

Azkenik, 16. artikuluan estatu alderdiei eskatzen die desgaitasunak dituzten emakumeak eta neskak etxean nahiz etxetik kanpo esplotazio-, indarkeria- eta abusu-forma guztietatik babesteko egokiak diren neurri legegile, administratibo, hezitzaile eta edozein motatakoak hartzeko, baita beren beharrizan espezifikoak aintzat hartuko dituzten laguntza- eta babes-forma bereziak izango dituztela bermatzeko ere.

4. Bestalde, *Emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta haien kontra borrokatzeko Europako Kontseiluaren hitzarmenak (Istanbul)*, 2011ko maiatzaren 11n sinatu zenak eta izaera loteslea duenak, honakoa adierazten du oinarritzko eskubideei, berdintasunari eta diskriminazio ezari buruzko 4. kapituluan:

«Alderdiek hitzarmen honetako xedapenak aplikatzerakoan, zehazki, biktimen eskubideak babesteko neurriak, bermatu egin beharko dute inolako diskriminaziorik gabe egiten dela, bereziki, sexuagatik, generoagatik, arrazagatik, koloreagatik, erlijioagatik, iritzi politiko edo beste edozein iritzi motagatik, jatorri-herrialde eta gizarte-mailagatik, gutxiengo baten kide izateagatik, aberastasun ezagatik, jaiotzagatik, orientazio sexualagatik, sexu-identitateagatik, adinagatik, osasun-egoeragatik, desgaitasunagatik, egoera zibilagatik, emigrante- edo errefuxiatu-estatusagatik edo beste edozein egoeragatik eragindako diskriminazioari dagokionez».

5. *Europar Batasuneko desgaitasuna duten emakumeen eta nesken II. manifestuan*¹⁶ (2011) azaltzen den bezalaxe, desgaitasuna auzi transbertsal bat da, politika, ekintza eta neurri guztietan txertatu behar dena emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta ezabatzeko, baita irisgarritasun unibertsalaren printzipioa bermatzeko ere. Halaber, erakundeetan sartuta dauden nesken eta emakumeen aurkako indarkeria-egoerak garaiz hautemateko sistema bat behar dugu, haien arretan lan egiten duten profesionalek indarkeriatik eta gehiegikerietatik babes ditzaten.

Azkenik, manifestu horren arabera, aintzat hartu behar da diskriminazio mota ezberdinek, sozialki eta kulturalki eraikitakoek, –egoera ekonomikoak, arrazak, jatorri etnikoak, orientazio sexualak, nazionalitateak, erlijioak, kulturak...– elkarri eragiten diotela hainbat mailetatik, eta gizarte-desberdinkeria sistematikoa osatzen dutela. Faktore horiek bat egiten dute (ELKARRERAGINTASUN deritzoguna) desgaitasuna duten emakumeen eta nesken

¹⁶ http://www.convenciondiscapacidad.es/Publicaciones_new/33_Manifiesto_mujer.pdf

kasuan, eta eragin biderkatzailea sortzen da horrela, diskriminazioa areagotzen duena. Pertsonak beren nortasuna eratzeko duten modua dago diskriminazio horren jatorrian; izan ere, ez du onartzen desgaitasuna duten emakumeen artean dagoen aniztasuna, eta sozializazio-eremu guztietan homogeneousatzeko joera du, beren errealitatea ikuspegi baztertzaitetik ulertuta.

6. Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoaren txostena. Desgaitasuna duten emakumeen eta nesken aurkako indarkeriari buruzko azterketa tematikoak (Nazio Batuak, 2012) ohartarazten du desgaitasuna duten emakumeek jasaten duten indarkeria ezkutuan dagoela, are emakumeen aurkako indarkeriaren esparruko ekintzetan ere. Desgaitasuna duten emakumeek diskriminazioa jasaten dute emakume izateagatik eta desgaitasuna izateagatik. Horregatik, sarritan, desgaitasuna duten emakumeek ez dute pribatutasunik, erregulariki eta sistematikoki urratzen dira beren eskubideak, isolatu egiten dira, kulturarako eta aisialdi partekatutako sarbide normalizatua ukatzen zaie eta diskriminazioa jasaten dute lan-merkatuan sartzeko, besteak beste. Bada, desgaitasuna arrisku-elementu bihurtzen da tratatu txarrak eta abusuak edo sexu-erasoak jasateari begira. Beste pertsona batzuekiko mendekotasunak ere areagotu egiten du indarkeria sufritzeko arriskua, bai ekintzagatik bai omisioagatik.

Hala, desgaitasuna duen emakumearen edo nesken aurkako indarkeriak ezaugarri komunak ditu gainerako emakumeen aurkako indarkeriarekin, baina horrez gain baditu indarkeria mota horrekin lan egiten duten profesional guztiek ezagutu eta aintzat hartu behar dituzten beste bereizgarri batzuk ere, horrela arreta egokia eman eta indarkeria-, esplotazio- edo/eta abusu-ekintza oro ekiditeko neurriak hartzeko.

7. Desgaitasuna duten emakumeen aurkako indarkeriaren esparruan, garrantzitsua izan zen **METIS Proiektuaren** dibulgazioa. 1999an garatu zen **DAPHNE Erkidegoko Ekintza Programaren** barruan, haurren, gazteen eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitu eta hari aurre egiteko, baita biktima eta arrisku-taldeak babesteko ere. METIS programak jaso eta deskribatu egin zituen desgaitasuna duten emakumeen banakako eskubideen urraketa islatzen dituzten egoera asaldagarriak, pertsonaren garapenaren eta autonomiaren aspektu guztiei dagokienez.

B. ESTATUKOA

8. Espainian desgaitasuna duten pertsonen gaineko legeen artean bereziki aipagarria da ***1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren Testu Bategina onartzen duena***. Haren 3. artikuluko printzipioen artean «emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna» aipatzen da, zehazki, f) letran. Aurrerago, «Berdintasunerako eskubidea» izeneko 7. artikuluko 3. apartatua ezartzen da administrazio publikoek «ahalegin berezia egingo dutela desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideak babesteko emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan». Halaber, artikuluko 4. apartatua ezartzen du administrazio horiek «bereziki babestuko dituzte diskriminazio anizkunaren kaltea jasateko arrisku berezia duten pertsonak edo pertsona taldeak, hala nola desgaitasunen bat duten umeak eta emakumeak, desgaitasunen bat duten adinduak, genero-indarkeriaren biktima diren eta desgaitasunen bat duten emakumeak, desgaitasun anitz dituzten pertsonak edo gutxiengo bateko kide diren eta desgaitasuna duten pertsonak».

Testu arautzaile bereko 23. artikuluan irisgarritasunaren eta diskriminazio ezaren oinarritzko baldintzen artean jasotzen da «baldintza lagungarriagoak» ezarri behar direla «arlo edo esparru bakoitzeko baliabideak eskuratzeko, haietan parte hartzeko eta erabiltzeko, baita diskriminazio ezaren baldintzak ere, arau, irizpide eta praktiketan»; hau da, ekintza positiboen alde egiten du diskriminazioa prebenitzeko bide gisa. Gainera, 2. artikulua i) letran, normalizazio-printzipioa aipatzen da, eta, haren arabera, «desgaitasuna duten pertsonak aukera izan behar dute baldintza berdinetan bizi ahal izateko, eta beste edozein pertsonak eskura dituen leku, eremu, ondasun eta zerbitzu berberetarako sarbidea izateko».

9. Ildo beretik, ***39/2006 Legeak, abenduaren 14koak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak***, honakoa aipatzen du printzipio inspiratzaileen artean: «Genero-ikuspegia txertatzea, betiere aintzat hartuta emakumeen eta gizonen beharrian ezberdinak». Gainera, honakoa dio: «Emitzen ebaluazioan legearen garapenari buruzko genero-eraginaren gaineko txosten bat egingo da (...)».

10. Bestalde, *3/2007 Lege Organikoak, martxoaren 22koak, Emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak*, Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzen ditu tratu-berdintasunaren arloko Europako bi zuzentarau: 76/207 (EEE) Zuzentaraua aldatzeko den 2002/73 (EE) Zuzentaraua eta 2004/113 (EE) Zuzentaraua.

Honako hau dio zioen azalpen-zatian: «Orobat, arreta berezia jarri da, bereizkeria bikoitzeko kasuetan eta ahulezia berezia duten emakumeen zailtasun zehatzetan; azken horien artean daude gutxiengoetara bildutako emakumeak, emakume emigranteak eta desgai diren emakumeak».

Berdintasunerako politika publikoei buruzko II. Tituluan, zehazki, botere publikoen jardute-irizpide orokorreari buruzko 14. artikuluan, diskriminazio anitzeko egoerak jasotzen ditu (6. puntuan), botere publikoak aintzat hartu beharreko jardute-irizpide gisa: Kontuan hartzea ahulezia berezia duten kolektiboetako emakumeen zailtasun zehatzak; emakume horien artean daude gutxiengoetara bildutako emakumeak, emakume emigranteak, haurrak, desgai diren emakumeak, adineko emakumeak, emakume alargunak eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak. Orobat, botere publikoek ekintza positiboko neurriak hartu ahal izango dituzte emakume horiei begira.

Estatistiken eta ikerketen egokitzapenari buruzko 20. artikuluko c) letran dibertsitate funtzionala duten pertsonen luzaroan eskatutako kontu bat jasotzen da, genero-ikuspegia ikusgai jartzearekin lotuta dagoena: «Beste aldagai batzuen eragina ezagutzea posible egiteko beharrezkoak diren adierazleak eta mekanismoak diseinatu eta sartu, aldagaiok agertzeak bereizkeria anizkoitzeko egoerak sorrarazten baditu esku hartzeko eremuetan».

Azkenik, hamaikagarren eta hamalaugarren xedapen gehigarrietan, hainbat aldaketa txertatzen ditu Langileen Estatutuen Legean eta Gizarte Arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legean: idazkera berriak proposatzen ditu kontrako diskriminazio-egoera zuzen edo zeharkako batzuetarako, barne hartuta espezifikoki desgaitasunarekin lotuta daudenak.

11. *1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurka Osoko Babesa ematekoa*, aurrerapauso nabarmena izan zen oro har emakumeen aurkako indarkeria eta zehazki desgaitasuna duten emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko borrokan. Printzipio gidarien artean, desgaitasuna duten emakumeentzako arreta aipatzen da (2.k artikulua), informazio ulerterraz eta irisgarria eman dakien (18. art.). Legeak aitortutako eskubide ekonomikoak handitu egiten dira biktimari desgaitasunen bat ofizialki onartuz gero.

Horrez gain, desgaitasunaren ikuspuntua profesionalentzako prestakuntza-ikastaroetan txertatzeko beharra ere aipatzen du (47. artikuluan).

12. Azkenik, estatu-mailan, *Delituaren Biktimaren Estatutuari buruzko 4/2015 Legeak, apirilaren 27koak*, esplizituki hartzen ditu aintzat desgaitasunak dituzten biktimak hainbat artikulutan, hala prozesutik kanpoko eskubideei, biktimak zigor-arloko prozesuan parte hartzeko eskubideei eta biktimak babestea eta aitortzeari, nola biktima mota jakinei babes-neurri bereziak ezartzeari dagokienez.

C. AUTONOMIA-ERKIDEGOKOA

13. Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan, *Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legeak* diskriminazio anizkoitzeko egoerak jasotzen ditu printzipio orokorren artean: «Euskal herri-aginteei emakumeek edo emakume-kolektiboek beren oinarritzko eskubideak benetan erabil ditzaten bermatuko dute, emakume horiek diskriminazio anizkoitza pairatzen dutenean, emakume izateari diskriminazioa ekar dezakeen beste faktoreren bat eranstean zaion egoeretan; esaterako, arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa edo beste mota batekoa, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaiotza, desgaitasuna, adina, sexu-orientazioa edo beste edozein gorabehera pertsonal edo sozial».

14. *12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak*, zioen azalpen-zatian aitortzen du «herritarren eskubideen artean sartzen direla, gaur egun, ez bakarrik pertsona guztiei prestazio eta zerbitzu jakin batzuetarako eskubidea ezagutzea, baita diferentziarako eskubidea aitortzea ere. Eredu horren muin-muinean izango lirateke berdintasun- eta ekitate-printzipioak, izan ere, printzipio horiek sistemaz bazterkeriarik gabe baliatzea bermatzen dute, baita askotariko ikuspegiak bateratzea (generoa, dibertsitate sexuala, kulturartekotasuna, belaunaldiartekotasuna, sistema herritar guztien eskura izatea, eta gizon nahiz emakumeentzat diseinatua izatea) eta ekintza positiboko eta aukera- eta tratu-berdintasunerako neurriak aplikatzea ere». Zentzu berean, Lege hori arautzen duten printzipioei buruzko 7. artikuluko c) letran ezartzen da EAEko administrazio publikoek beren prestazio eta zerbitzuetarako sarbidea «ekitatearen irizpidearen arabera baliatzea bermatuko dutela, baldintza sozial edo pertsonalengatik bereizkeriarik eragin gabe, ekintza positiborako

edo aukera- eta tratu-berdintasunerako neurriak aplikatzearen kalterik gabe, eta beren jardunean gizonen eta emakumeen berdintasunaren eta dibertsitate sexualaren ikuspegiak integratuz».

Halaber, lege bereko zioen azalpen-zatian honako hau ere ezartzen da: «Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunera hurbildu ahala gertatzen diren aldaketa sozialei egokitu behar zaizkie gizarte-zerbitzuak. Horretarako, emakumeak gizarteratzen laguntzen duten jarduerak eta zerbitzuak sustatuko dira, bereziki, bazterketari, babesgabetasunari, tratu txarrei eta indarkeriari aurre egiteko baliagarri direnak».

15. Horrez gain, bidezkoa da **185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa** ere aipatzea; izan ere, bertan zehazten dira autonomia-erkidegoko administrazioak ematen dituen zerbitzuetarako sarbide-prozesua, baita zerbitzu horien helburu eta ezaugarriak ere.¹⁷

16. Esparru soziosanitarioan, **Euskadiko arreta soziosanitarioaren lehentasun estrategikoek** hainbat ekintza aurreikusten dituzte, besteak beste, «Genero-indarkeria jasan duten pertsonak arriskuan edo babesik gabe dauden egoerei edo tratu txarrak jasotzen dituztenei dagokienez, prebentzioa eta jardutea» (4.2.9.).

17. Azkenik, **Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeentzako arreta hobetzeko Erakundearteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordearen Erakundearteko Talde Teknikoa** da EAEko erreferentzia-esparrua.

Akordioaren printzipio orokorren artean, aipatzen da arreta biktima guztiei eskaintzen zaiela bermatu beharko dela, honako ezaugarriengatik inor baztertu gabe: egoera zibila, sexu orientazioa, adina, sinesmen edo ideologia, gutxiengo etniko, nazional edo linguistiko bateko kide izatea, maila ekonomikoa, ezgaitasun fisiko, psikiko edo sentorialak, edota beste edozein egoera pertsonal edo sozial. Era berean, beharrezko neurriak hartuko dira beren egoera pertsonal eta sozialarengatik laguntza osoa jasotzeko zailtasunak dituzten biktimen eskubideak modu eraginkorrean bermatzeko, bereziki, ezgaitasunak dituzten emakumeek eta emakume etorkinek, edozein dela ere beraien egoera administratiboa, eskubide horiek izan ditzaten.

¹⁷ 2.7.5. Tratu txarren eta sexu-erasoen biktima izan diren emakumeei, adingabeei, adinduei eta ahalmen-urritasunen bat duten pertsonen laguntza psikosoziala eta soziojuridikoa emateko zerbitzuak.

2.3 LEGERIAREN APLIKAZIOARI BURUZKO GOGOETAK

Azken urteotan aurrerapen handiak lortu dituzte emakumeen aurkako indarkeriaren arloan eragile politiko, judizial eta sozialek, hartara indarkeria mota hori prebenitzeko eta ezabatzeko politikak eta jarduketa-neurriak sustatuz. Hori bai, nahiz eta desgaitasuna duten emakumeak kontzeptualki beti kontuan hartu diren, esku-hartze praktikoan zailtasunak daude oraindik ere.

Desiragarria da sinatutako lege eta hitzarmenen inplementazio zuzenerako aurrerapausoak ematea. Horretarako, lehenik eta behin, indarkeriaren eta sexu-abusuaren aurkako babes-zerbitzuetako langileak eta profesionalak treba daitezen sustatu behar da, desgaitasuna duten emakumeek eta neskek esparru horretan dituzten berezitasunei eta premia jakinei buruzko ezagutzak eskura ditzaten, aniztasunari eta heterogeneotasunari arreta berezia eskainita.

Zentzu horretan, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Batzordeak kezkatuta dagoela jakinarazi zion Espainiari azken horrekin izandako solasaldi eraikitzailean; izan ere, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko programa eta politika publikoek ez dituzte behar beste aintzat hartzen desgaitasunak dituzten emakumeak. Gauzak horrela, genero-indarkeriari, enpleguari, hezkuntzari, osasunari eta gizarte-segurantzari buruzko programa eta politika publikoetan desgaitasunak dituzten emakumeak aintzat hartzea eskatu zion Espainiari, batez ere desgaitasuna duten emakumeek genero-indarkeriari aurre egiteko sistema eraginkor eta integratu baterako sarbidea dutela bermatzeko.

3 EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA JASATEKO ARRISKUA AREAGOTZEN DUTEN FAKTOREAK

3.1 ORO HAR, DESGAITASUN GUZTIENTZAT

- Beste pertsona batzuen laguntzarekiko mendekotasun handiagoa izatea, batzuetan pertsona horiek direlako tratu txarrak ematen dizkietenak, eta haustura horrek berekin dakarren zaintza-lanen galeraren beldur izatea.
- Dibertsitate funtzionala duten emakumeek laguntza ematen dieten edo/eta ekonomikoki mantentzen dituzten pertsonekin zor bat dutela sentitzea.
- Erasotzaileak babesgabetasun handiagoa hautematea.
- Autoestimu eta ahalduztze-maila baxuagoa.
- Zailtasun handiagoak izatea gizartean parte hartzeko eta ekonomikoki autonomia izateko.
- Zailtasunak izatea hezkuntzan eta/edo lan-merkatuan sartzeko, horrek mendekotasun ekonomiko handiagoa eragiten baitu. Prebalentzia baxuagoa etxetik kanpo egiten diren lanetan. Horrek isolatu egiten ditu etxean, eta handitu egiten du erasotzailearekiko mendekotasun ekonomikoa izateko aukera.
- Zailtasun handiagoak izatea tratu txarren berri emateko, hainbat arrazoigatik: komunikazio-arazoak, komunikazio-kode ezberdinak erabiltzea eta indarkeriari buruzko informaziorik ez edukitzea.
- Aintzat hartu behar da desgaitasunik ez duten arren, desgaitasuna duten seme-alabak dituzten emakumeen egoera.
- Babesgabetasun-egoera berezi batean egon daitezke hasieran desgaitasunik ez duten arren, egoera jakin bategatik edo indarkeria behin eta berriz jasateagatik desgaitasun hori hartzen duten emakumeek bizi dutena, bat-batean etorritako egoera hori dela medio.
- Desgaitasuna duten emakumeek jakinarazitako egoerei sinesgarritasun baxuagoa emateko joera soziala, kasu batzuetan bereziki, desgaitasun jakinen arabera.
- Emakumeei tradizionalki ezarritako rolen eta desgaitasuna duten emakumeei rol horiek ukatzearen arteko borroka.¹⁸

¹⁸ Giza Eskubideak eta Desgaitasuna txostena. *Espainia* 2010. (CERMI, 2011).

- Beren premiei egokitutako fororik ez egotea, bertan beren bizitza-esperientziak partekatu eta besteen esperientzietatik ikaste aldera.
- Desgaitasunaren ikuspuntua aintzat hartzen ez duten politika publikoak eta desgaitasun ezberdinak dituzten emakumeen premiak homogeneousatzeko joera.
- Irisgarriak ez diren zerbitzu eta baliabide publikoak.
- Desgaitasuna duten eta indarkeriaren biktima diren emakumeak arta ditzaketen profesionalen gabeziak sentsibilizazioan eta prestakuntzan: hezkuntza- eta osasun-sektorea, sektore juridikoa eta soziala, indar eta segurtasun publikoena, etab.

3.2 ESPEZIFIKOAK

3.2.1. ENTZUMEN-DESGAITASUNA DUTEN EMAKUMEAK¹⁹

- Zailtasun handiagoak daude tratu txarrak azaltzeko komunikazio-arazoak daudelako tartean (pertsona biek dituzte arazoak, ez bakarrik pertsona gorrak, izan ere, komunikazio-kode ezberdinak erabiltzen dituzte).
- Komunikazio-arazoak «dituen» emakume gor bati normalean ematen zaion sinesgarritasun baxuagoa.
- Zailtasun handiagoak informazioa eta zerbitzuak eskuratzeko, tartean dauden komunikazio-oztopoak direla bide.
- Autoestimu baxuagoa eta norberaren emakume-irudiarekiko nolabaiteko gutxiespena, diskriminazioaren ondorio dena.
- Kaltetutako emakumeei buruzko informazioan hutsuneak edo, oro har, informazio-gabezia egotea indarkeriaren biktimei arreta- eta informazio-zerbitzuak eman behar dizkieten profesionalen aldetik.

3.2.2. IKUSMEN-DESGAITASUNA DUTEN EMAKUMEAK

- Zailtasun handiagoa indarkeriari eta eskuragarri dauden baliabideei eta zerbitzuei buruzko informazioa eskuratzeko, formatu egokituak falta direlako.
- Ziurgabetasun-maila handia, ia ezinezkoa delako emakume horiek beren buruak defendatzea.

¹⁹ Espainiako Gorren Konfederazio Nazionalaren gida. Emakumeen Batzordea.

- Autoestimua baxuagoa eta norberaren emakume-irudiarekiko nolabaiteko gutxiespena, diskriminazioaren ondorio dena.
- Beren autonomia lantzen ez badute, ingurukoekiko mendekotasun-maila handiagoa da.
- Lan-merkatuan sartzeko zailtasunak.
- Parte-hartze sozial baxua, isolamendua eta bakartasuna, emakume horietako askok mugikortasun mugatua dutelako eta toki eta garraiobide askotan irisgarritasun falta handia dagoelako.
- Arestian aipatutako problematika hori nabarmen larritzen da gor-itsuak diren emakumeen kasuan, zailtasun handiak dituztelako artatzen dituzten profesionalekin komunikatzeko.

3.2.3. ADIMEN- ETA GARAPEN-DESGAITASUNA DUTEN EMAKUMEAK²⁰

- *Adimen- eta garapen-desgaitasunaren* ezaugarri nagusia da mugapen nabarmenak izatea adimenaren funtzionamenduan eta moldatze-portaeran, moldatze-gaitasun kontzeptual sozial eta praktikoetan islatzen direnak. Hau da, mugatuta daude pertsonak bere eguneroko bizitzan funtzionatzeko ikasten dituen gaitasunak. Adimen-desgaitasuna duten pertsonen gainerakoei baino gehiago kostatzen zaie ikastea, ulertzea eta komunikatzea.
- *Adimen-desgaitasunaren* mota eta kausa ugari daude. Batzuk haurra jaio aurretik sortzen dira, beste batzuk erditzean, eta beste batzuk haurtzaroan pairatutako gaixotasun larriren baten ondorioz. Baina beti agertzen da 18 urteak bete baino lehen.
- *Garapen-desgaitasuna* adimen-desgaitasuna, autismoaren espektroko nahasmenduak, burmuineko paralisia eta adimen-desgaitasunarekin hertsiki loturik dauden beste desgaitasun batzuk edo adimen-desgaitasuna duten pertsonen laguntza-prozesu bera behar duten desgaitasunak barne hartzen dituen kontzeptua da. Garapenaldian sortzen diren desgaitasunen kasuan erabiltzen da; oro har, gure kulturaren, aldi hori bat dator pertsonen bizitzako lehenengo 18 urteekin. Termino horren bitartez adierazten da mugak daudela bizitzako eremu garrantzitsuetan, esaterako, hizkuntzan, mugikortasunean, ikaskuntzan, norberaren zaintza-lanetan eta bizitza independentean.
- Emakumearen eta adimen-desgaitasunaren arteko harremanak diskriminazioa areagotzen du. Adimen-desgaitasuna duten pertsona guztiek dituzte zailtasunak beren eskubide zibil nahiz sozialak erabili eta haietaz gozatzeko. Herritartasun-gabezia horren barruan, adimen-desgaitasuna duten emakumeek diskriminazio hirukoitza jasotzen dute: emakumeak izateagatik, desgaitasuna edukitzeagatik eta desgaitasun hori intelektualak izateagatik.

²⁰ FEAPS Madrid (Adimen-desgaitasuna duten pertsonen aldeko erakundearen federazioa).

- Adimen-desgaitasuna duten emakumeak are zaugarriagoak dira genero-indarkeriako egoeretan. Zehazki, jarraian datozen alderdiak azpimarra ditzakegu adimen-desgaitasuna duten emakumeek pairatzen duten indarkeriaren hasierari eta iraupenari dagokionez:
 - Autonomia mugatua izatea eta beste pertsona batzuen laguntza-/zaintza-lanekiko mendekotasuna izatea.
 - Jokabide adeitsu eta obeditzaileak indartzera bideratutako hezkuntza eta gizarteratzea.
 - Inguruaren gehiegizko babesa, autoestimu baxua eta hirugarrenetikiko mendekotasun emozionala sustatzen dutenak.
 - Jokabide kaltegarriak izaera kaltegarria dutela hautemateko gaitasun mugatua.
 - Bizitako indarkeria-egoera delitu salagarria dela ez jakitea.
 - Beren burua defendatzeko baliabide mugatuak izatea.
 - Informaziorako sarbidea izateko eta zerbitzuak erabiltzeko gaitasun mugatua izatea, ulertzeko eta adierazteko zailtasunak dituztelako, eta
 - indarkeria-egoerak artatzen dituzten baliabide publikoak beren premietara ez egokitzea.
 - Indarkeria-egoera potentzialak hauteman, ikertu eta ekiteko prestakuntza profesionala mugatua izatea.
 - Indarkeria-egoerak bizi izan dituztela adierazten dutenean, gertatutakoaren narrazioari ematen zaion sinesgarritasun baxuagoa.
 - Enplegurik eta baliabide ekonomikorik ez izatea, edo hirugarrenek beren baliabide propioak kudeatzeko laguntza behar izatea.
 - Parte-hartze sozial mugatua, isolamendua.
- Oso ikerketa gutxi daude adimen-desgaitasuna duten emakumeei eta generoagatiko diskriminazioari buruz²¹.
- Adimen-desgaitasuna duten emakumeen % 10 baino ez da joaten ginekologia-azterketak egitera²².

²¹ «Género y discapacidad intelectual en Castilla y León» ikerlana, FEAPS Gaztela eta Leon.

²² «Discapacidad intelectual y salud. Derechos, desigualdades, evidencias y propuestas». 2013. Plena inclusión eta Madrilgo Unibertsitate Autonomoa.

- Gainera, Autismoaren Espektroko Nahasmendua (AEN) duten emakumeen kolektiboa ikertzeke dago, eta jorratu beharreko erronka bat ere bada:
 - AEN duten emakumeek ez dute nahasmendua identifikatzea ahalbidetzen duten ezaugarri fisiko berezirik.
 - AEN duten emakume asko berandu diagnostikatzen dira eta/edo diagnostiko okerrak jasotzen dituzte, besteak beste, fobia soziala edo mugaren nortasuneko nahasmendua (New et al. 2008) edo anorexia (Treasure, 2007), diagnostikoa AEN izan daitekeelako susmorik gabe, eta aukera hori aintzat hartu gabe. (Attwood, 2007).
 - AEN duten emakumeek harreman sozialak izan nahi dituzte, baina ondorioak dituzte inhi-bizio-prozesuetan dituzten zailtasunek eta zotin eta hipersentikortasun sentorioraleko nahasmendu larriek: inpultsibitatea, arriskuak hartzea eta sexu-jarduera arriskutsuetan parte hartzea.²³

3.2.4. GAIXOTASUN MENTALA DUTEN EMAKUMEAK²⁴

- Autonomiarik ez izatea eta beste pertsona batzuekiko mendekotasuna izatea.
- Enplegurik eta baliabide ekonomikorik ez izatea.
- Parte-hartze sozial baxua, isolamendua eta bakardadea.
- Gaixotasun mentalaren inguruan dagoen estigma soziala eta bikotekidea izateko zailtasun handiagoak dituztelako harreman desorekatuak izateko probabilitate altuagoa, estigma horri lotuta dagoena.
- Beren burua defendatzeko baliabide falta.
- Autoestimu baxuagoa eta berenganako abusu-harremanak justifikatzeko joera handiagoa, gutxi balio duten sentimendua dutelako.
- Bizitzari bakarrik aurre egiteko gaitasun txikia dutela sentitzea.
- Indarkeria-egoerak bizi izan dituztela adierazten dutenean, gertatutakoaren narrazioari ematen zaion sinesgarritasun baxuagoa.
- Informazioa eta zerbitzuak eskuratzeko zailtasun handiagoak.

²³ Lemon, J. M., Gargaro, B., Enticott, P. G., eta Rinehart, N. J. (2011). Brief report: Executive functioning in autism spectrum disorders: A gender comparison of response inhibition. *Journal of autism and developmental disorders*, 41(3), 352-356.)

²⁴ *Investigación sobre violencia contra las mujeres con enfermedad mental*. Fedefes, 2016

- Indarkeria-egoerak artatzen dituzten baliabide publikoak beren premietara ez egokitzea.
- Haurtzaroan indarkeria sufritu izana etxean, aita amari egindako indarkeriaren lekuko izatea edo gaixotasunaren desoreka-une batean edo haurdun egotea.
- Arrisku gehien duten hautemandako diagnostikoak: izaeraren nahasmenduak, bereziki mugako nortasunarena, eskizofrenia, nahasmendu bipolarraren fase maniakoak, droga-mendekotasunak eta diagnostiko larriak, hain larriak ez diren diagnostikoen aldean.
- Gainera, arreta ematen duten profesionalek indarkeria tratatzeari dioten beldurrak are gehiago zailtzen du indarkeria-egoerak hautematea eta egoera horiei aurre egitea. Emakumeari galdetzeak desorekatu egingo duen uste okerra.
- Gogoan izatea indarkeriaren eta gaixotasun mental larriaren arteko loturak (GML duten emakume askok sexu- edo familia-indarkeria jasan zuten haurtzaroan; indarkeriaren eta beste gaixotasun mental batzuen artean lotura dago, eta, azkenik, indarkeriaren biktima izateak ondorio larriak ditu osasun mentalerako, besteak beste, aurretiazko gaixotasun mental baten sintomak larritzea).

3.2.5. DESGAITASUN FISIKOA ETA ORGANIKOA DUTEN EMAKUMEAK

- Arkitektura-oztopoak egotea.
- Beren burua defendatzeko aukera txikiagoak.
- Indarkeriaren berri emateko beldurra zaintza-lanak galtzeko arriskuagatik, bereziki eguneroko bizitzako oinarritzko ekintzetan laguntza behar duten emakumeen kasuan.
- Enplegurik eta baliabide ekonomikorik ez izatea, batzuetan lanpostuak ez daudelako egokituta.
- Parte-hartze sozial baxua, isolamendua eta bakartasuna, emakume horietako askok mugikortasun mugatua dutelako eta aisialdi- eta topaketa-tokietarako iristeko zailtasuna.
- Autoestimua baxuagoa (beren emakume-irudiarekiko sentitzen duten gutxiespenagatik eta gainontzekoek duten irudi sozialagatik) eta beraigenganako abusu-harremanak justifikatzeko joera, gutxi balio dutela eta mendekoak direla sentitzen dutelako.
- Bizitzari bakarrik aurre egiteko gaitasun txikia dutela sentitzea.
- Indarkeria sustatzen duten inguruneetan bizitzea: erakundeak, egoitzak, ospitaleak.
- Emakume horien aurkako sexu-abusuak justifikatzeko ematen diren azalpen irrazionalak.

Jarraian datozen alderdiak azpimarra ditzakegu adimen-desgaitasuna duten emakumeek pairatzen duten indarkeriaren hasierari eta iraupenari dagokionez:

- Autonomia mugatua izatea eta beste pertsona batzuen laguntza-/zaintza-lanekiko mendekotasuna izatea.

- Jokabide adeitsu eta obeditzaileak indartzera bideratutako hezkuntza eta gizarteratzea.
- Inguruaren gehiegizko babesa, autoestimu baxua eta hirugarrenetikiko mendekotasun emozionala sustatzen dutenak.
- Jokabide kaltegarriak izaera kaltegarria dutela hautemateko gaitasun mugatua.
- Beren burua defendatzeko baliabide mugatuak izatea.
- Informaziorako sarbidea izateko eta zerbitzuak erabiltzeko gaitasun mugatua izatea, ulertzeko eta adierazteko zailtasunak dituztelako, eta
- indarkeria-egoerak artatzen dituzten baliabide publikoak beren premietara ez egokitzea.
- Indarkeria-egoera potentzialak hauteman, ikertu eta ekiteko prestakuntza profesionala mugatua izatea.
- Indarkeria-egoerak bizi izan dituztela adierazten dutenean, gertatutakoaren narrazioari ematen zaion sinesgarritasun baxuagoa.
- Enplegurik eta baliabide ekonomikorik ez izatea, edo hirugarrenek beren baliabide propioak kudeatzeko laguntza behar izatea.
- Parte-hartze sozial mugatua, isolamendua.

4 GOMENDIOAK

4.1 DESGAITASUN GUZTIETAN, ORO HAR

4.1.1. EZAGUTZA HOBETZEA

- Indarkeriari buruzko datua desgaitasun ezberdinak dituzten emakumeen historia klinikoan edo gizarte-fitxan erregistratzea, betiere emakumearen baimenarekin. Bertan zehaztuko da indarkeria hori bikotekideak, senitarteko batek edo zaintzaileren batek egin duen. Horrez gain, emakumearen desgaitasun mota ere adieraziko da.

4.1.1.1 PROFESIONALEI HEZIKETA ETA PRESTAKUNTZA EMATEA

- Unibertsitateko gradu eta LHko ziklo guztietan desgaitasunari buruzko eduki espezifikoak txertatzea. Desgaitasuna duten pertsonen tratamenduarekin, haien oinarritzko eskubideekin (NBren konbentzioa), autonomia pertsonala izateko garrantziarekin, irisgarritasun unibertsalarekin, gizarte-ereduan parte hartzearekin eta beste zenbait arlorekin zerikusia duten alderdiak gehitzea.

- Desgaitasunean eta genero-ikuspegian espezializatutako prestakuntza ematea: prestakuntza hobetzea, gaitasun profesionalak hobetzeko. Balorazioa egin behar duten langileei prestakuntza ematea indarkeria-kasuak hauteman ditzaten. Desgaitasuna duten emakumeei egiten zaien indarkeria hautemateko adierazleak txertatzea sistema guztietan.
- Hedabideetako profesionalei prestakuntza ematea desgaitasuna duten emakumeak behe-mailako eta mendeko emakume gisa aurkezteko joera desager dadin eta beste emakume batzuekin batera aurkez ditzaten, eredu integratzaile bat sustatzeko ekintza ez-biktimizatzaileen bitartez. BEGIRA aintzat hartzea, zeregin hori bete eta desgaitasuna zeharkako aldagai gisa txertatzeko BEGIRA prestakuntzan.
- Dibertsitate funtzionala duten emakumeen aurkako indarkeriaren problematikaren munta ikusaraztea zuzeneko arreta ematen duten langileei.
- Arretan eta informazioan lan egiten duten profesionalen hainbat kolektibori prestakuntza ematea: hezkuntzan, arlo soziosanitarioan, hedabideei, segurtasun-indarrei eta Justiziak eskaintzen dituen beste gizarte-zerbitzu batzuei, eta abar. Gainera, garrantzitsua da prestakuntzaren edukiak eta prestakuntza emateko tresnak irisgarriak izatea pertsona guztientzat.

4.1.1.2 SENTSIBILIZAZIOA

- Emakume horiek jasaten duten genero-indarkeriaren indize altuari buruzko kontzientziazio sozialeko kanpainak egitea, baita egoera horiei aurre egiteko beharrari buruzkoak ere. Ezinbestekoa da egitasmo hori erabiltzea gai horrek desgaitasunak dituzten emakumeen kolektiboan duen eragina ikusgai jartzeko.
- Salatzearen garrantzia behin eta berriz errepikatzea. Horretarako, administrazio eskudunak desgaitasuna duten eta salaketak jartzen dituzten emakumeen premiak artatzeko beharrezkoak diren mekanismoak gaitu behar ditu.
- Hizkera erraza eta zaindua erabiltzea (edozein kasutan, diskriminatzailea ez dena), eta erabilitako materialak eta tresnak denontzat irisgarriak direla bermatzea (braille transkripzioak, QR kodeak, etab.). Horrez gain, beharrezkoak diren egokitzapen-neurriak hartu behar dira komunikazioa bermatzeko (interpreteak gorrentzat, gida-interpreteak edo bitartekariak gorak etaitsuak diren pertsonentzat eta abar).

4.1.1.3 IKERKETA

- Desgaitasuna adierazle gisa gehitzea. (GSI) Bitartean, mendekotasun- eta desgaitasun-balorazioetatik eratorritako ezagutza erabiltzea. Datuak desgaitasunaren eta sexuaren arabera bereiztea.

- EETi proposatzea azterketa kualitatiboa eta kuantitatiboa egiteko aukera, Euskadiko errealitateari aplikatuta, desgaitasuna duten emakumeen indarkeriarekin zerikusia duten egoerei eta jasotako arretari buruz, jardunbide onak definitzeko eta administrazioek emakume horien premiak ase eta beren eskubideak erabiltzeko eskuragarri jarri behar dituzten bitartekoak zeintzuk diren planteatzeko.
- Aztertzea gizarte-zerbitzuen eskariari buruzko estatistikan indarkeriari buruzko modulu bat txertatzeko aukera. Behar sozialen inkesta.
- Datu horiek eskuratu ahal izateko (egungo legerian bereziki babestu beharrekoak), sisteman gehitzeaz gain, datu horiek ematearen garrantziari buruz kontzientziatu behar dira eragindako emakumeak. Gainera, ez da soilik kontuan hartu behar indarkeria-egoeraren aurretiko desgaitasuna; horrez gain, aintzat hartu behar da indarkeriaren ondorioz sortu edo larritu daitekeena.

4.1.2. EMAKUMEEI ESKAINITAKO INFORMAZIOA ETA PRESTAKUNTZA

- Emakumeen informaziorako eskubidea bermatzea, informazio hori irisgarri bihurtuz eta behar den neurrian egokituz prozesuaren fase guztietan. Bermatzea informazioa ematen duten tokiak irisgarriak direla, eta, halaber, konfidentzialtasuna eta pribatasuna bermatzea.
- Desgaitasuna duten emakumeak ahalduzaren ikuspegitik hezteak: hirugarren pertsona batek emandako laguntza-zerbitzua nola kudeatu irakatsi behar zaie, zerbitzu hori kontrolatu eta antolatzeak gai izan daitezkeen. Gainera, sexualitate osoa izateari buruz ere hitz egin behar zaie, beren eskubideen berri emateaz gain.
- Prestakuntza-saioak egitea eguneko zentroetan eta egoitzetan²⁵, desgaitasuna duten emakumeek indarkeria zer den, nola prebenitu eta hauteman daitezkeen, eta indarkeria gertatzen ari bada, nola jardun jakin dezaten. Posible bada, prestatzaileen artean desgaitasuna duen emakumeren bat egotea.
- Bermatzea dibertsitate funtzionala duten emakumeek taldean lan egiteko aukera dutela²⁶ ahalduzarekin, gure gizartean indarrean dagoen amodio erromantikoaren ereduarekin eta emakumeen aurkako indarkeriarekin zerikusia duten gaietan. Prestakuntza desgaitasun ezberdinen

²⁵ Bilboko Udalak desgaitasuna duten pertsonen elkarteetako emakumeei zuzendutako indarkeriari buruzko prestakuntza-tailerrak antolatu zituen Fekoorrekin lankidetzan. Arabako Foru Aldundiko GOFek antzeko tailerrak egin ditu Lantze zentro okupazionaletan EMAIzEren lankidetzarekin eta Laudiko Udalaren eta Lakuaren finantzaketarekin. Desgaitasuna duten pertsonen, familiei eta profesionalen zuzenduta egon dira tailer horiek. Ildo beretik, adimen-desgaitasuna duten emakumeei eta gizonei zuzendutako prestakuntza-saioak egin dira Madrilgo erkidegoan. FEAPS (Adimen Urriko Pertsonen aldeko Federazio eta Elkarrean Espainiako Konfederazioa) Madrilko koordinatu ditu

<http://revistas.uned.es/index.php/accionpsicologica/article/viewFile/440/766>

²⁶ Hortalezako Osasun Mentaleko Zentroaren (Madril) esperientzia kontsulta daiteke.

<http://www.copmadrid.org/webcopm/publicaciones/clinicacontemporanea/cc2014v5n1a3.pdf>

premietara eta errealitatera egokitzea.

- Desgaitasuna duten emakumeak udal ahalduntze-eskoletan sartzeari ahalbidetzea.
- Desgaitasun ezberdinen inguruan lan egiten duten elkarteak elkarte-mugimenduarekin batera indarkeria prebenitzeko eta hautemateko egiten ari den lanean sartzeari ahalbidetzea. Ahalduntze-prozesuak sustatzea.
- Administrazio publikotik prestakuntza eskaintzea elkarte horietako profesionalei, baita indarkeriaren biktima diren emakumeak artatzeko eskuragarri dauden baliabide publikoei buruzko informazioa ere. Horrez gain, garrantzitsua da profesional horiei orientazioa ematea indarkeria-kasuak hauteman ahal izateko eta biktimari salaketa jartzen lagundu ahal izateko.

4.1.3. ERAKUNDEARTEKO ETA BARRUKO KOORDINAZIOA

- Koordinazioa hobetzea, erakundearen barrukoa nahiz kanpukoa. Koordinazio-protokolo batekin egitea.
- Tokiko protokoloetan dibertsitate funtzionala sartzeari ahalbidetzea.
- Foro bat sortzea informazioa trukatzeko eta batera lan egiteko.
- Bermatzea dibertsitate funtzionala duten emakumeak daudela eztabaida-foro guztietan.
- ETTtik Koordinazioaren Dekalogoaren egitea.
- Protokolo sinple bat egitea indarkeria-egoerak prebenitzeari, hautemateari, kudeatzeari eta artatzeari buruz, desgaitasunak dituzten pertsonak artatzen dituzten gizarte-zerbitzu eta zentro guztietan banatzeko. Erakunde kudeatzaileei protokolo hori ezartzeko eskatzea, eta dokumentu horri buruzko sentsibilizazioa egitea eta prestakuntza ematea. Desgaitasuna duten pertsonen elkarteak dokumentu horren ezaugarri nagusien berri ematea.
- Dibertsitate funtzionalaren ikuspuntua indartzea desgaitasun ezberdinei arreta emanez *Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeen harrera hobea egiteko Erakundearteko III. Akordioan*. Organo koordinatzaile bat sortzea. ETT izan daiteke organo hori.
- Erakundearen artean datuak partekatze eta indarkeria-egoeren aurreko arreta koordinatzeko sistemak eta protokoloak garatzea²⁷.

4.1.4. DETEKZIOA

²⁷ Arabako Foru Aldundiko GOFek genero-indarkeria hautemateko eta esku hartzeko protokolo bat egin du Desgaitasun Atalean.

- Detekzio goiztiarra egitea, muturreko egoeretara iritsi beharrik ez izateko.
- Profesional sanitarioak kasuen detektatzaile nagusi izateko gaitzea; izan ere, desgaitasuna duten emakumeek zerbitzu horiek erabiltzen dituzte normalean. Hitzorduetarako denborak, arkitektura-oztopoak, informazioa eta komunikazioa eta emandako tratua egokitzea.
- Etxeetan egiten diren balorazioak erabiltzea indarkeria-kasuak hautemateko.
- Arreta berezia jartzea eskola bereizietan eta erakundeetan dauden eta desgaitasuna duten emakumeen bazterketari eta isolamenduari; izan ere, bi faktore horiek indarkeria eta sexu-abusuak pairatzeko zaurgarritasuna handitu eta zigorgabetasuna sustatzen dute.
- IRIS galdetegia erabiltzea.
- Desgaitasun ezberdinen inguruan lan egiten duten elkarrekin detekzio-lanean inplikatzeko. Foro horietan eroso senti daitezke, eta errazagoa izan daiteke detekzio goiztiarra.
- Emakumeentzako espazioak sortzea, taldean ahalduntzea eta amodio erromantikoarekin eta emakumeen aurkako indarkeriarekin zerikusia duten gaiak landu ahal izateko.

4.1.5. ARRETA

- Sustatzea dibertsitatea duten emakumeak arreta zuzena ematen duten langileen artean egotea. Hala, dibertsitate funtzionala duten emakumeen aurkako indarkeriaren biktimek beldur txikiagoa izango diote norbaitek beraiek kontatutakoa zalantzan jartzeari, enpatia handiagoarekin artatzen dituztela sentituko dute eta seguruago sentituko dira.
- Desgaitasunaren ikuspuntua gehitzea, betiere desgaitasun ezberdinen ezaugarri bereziei erreparatuz, modu transbertsalean. Emakumeei arreta ematen dieten langileak kontzientziatzea, prestatzea eta behar dituzten baliabideez hornitzea.
- Autonomia pertsonala sustatzea.
- Desgaitasuna duen emakumeari zuzentzea zuzenean, eta ez berarekin datorrenari. Tratua banakakoa dela bermatu behar da, eta emakumeek intimitatea eta beren buruak adierazteko askatasuna izatea.
- Adjudikazio publikoetako klausuletan sartzea organismo kolaboratzaileek jarduketa-prozedurak izatea indarkeria-kasuei aurre egiteko.
- Biktimari emandako eta etorkizunean emango direla aurreikusten den urrats guztiak jakinaraztea, desgaitasuna duen emakumeak erabakiak aktiboki eta kontzienteki har ditzan sustatzeko. Emandako urratsen ondorioak eta jarduteko aukerak azaltzea, erabakiak hartzea errazteko.
- Bermatzea dibertsitate funtzionala duten emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak direla emango diren urratsak erabakitzen dituztenak eta haiek izatea prozesua gidatzen dutenak,

deseroso sentiaraziko dituzten neurririk ezarri gabe. Entzumen aktiboa egin behar da, eta ulertarazi egin behar zaie ekiten ari diren ibilbide berri hori beraingatik eta beraientzat egingo dela.

- Salaketa jasotzen den unetik beretik hobetzea esku hartzeko eta arreta emateko prozesua, eta beharizanen entzumen aktiboa egitea.
- Bermatzea Etxeko Arreta eta Laguntza Zerbitzuek desgaitasuna duten emakumeen aurkako genero-indarkerian espezializatuta daudela, aintzat hartuta norberaren gaitasun pertsonalak eta/edo pertsonen jokabidea.
- Jarraipen- eta kontrol-protokoloak ezartzea, sistema horren bitartez estalitako etxeetara bisita ugari (are aurretiazko abisurik gabe) barne hartzen dituen (elkarrizketak, zantzuak eta arriskuak jasotzea).
- Genero-indarkeriaren biktima diren eta desgaitasuna duten amen zaintza eta jagoletzaren babesa eta defentsa bermatzea.

Kasu askotan, harrera-programek, eta, bereziki harrera-baliabideek, barne hartzen dute seme-alaba adingabeentzako arreta; beraz, garrantzitsua da beraientzat ere irisgarriak izatea, batzuetan seme-alabak direlako desgaitasuna dutenak (eta ez zuzenean biktima bera).

- Bermatzea egokitutako etxebizitza-erreserba nahikoa dagoela desgaitasuna duten emakumeentzako edo desgaitasuna duten seme-alabak dituzten emakumeentzako.
- Sinesgarritzat jotzea beti salaketa-adierazpenak eta lekukotzak, bereziki adimen-desgaitasuna edo komunikatzeko zailtasunak dituzten emakumeenak eta neskenak, horregatik diskriminaziorik egin gabe, indarkeria edo sexu-abusua pairatzeko arrisku handiagoa dutelako.
- Bermatzea libreki ematen dutela baimena indarberritze-, errehabilitazio- eta gizarteratze-prozesuetan, bizitza autonomo eta independente baten barruko prozesuan eta adinaren arabera beharizan espezifikoak aintzat hartuta. Bermatzea, halaber, emakumeek aitorpenerako eta erreparaziorako eskubidea dutela.
- Identifikazio-, laguntza- eta deribazio-protokoloak garatzea zentro publiko eta itunduetan eta emakumeei eta dibertsitatea duten emakumeei arreta ematen dieten elkarteetan²⁸.
- Sistematikoki ikertzea indarkeriarik ba ote dagoen desgaitasuna duten emakumeek jasotzen duten arreta soziosanitarioan.
- Zaintzaileek eragindako indarkeria-kasuak, omisioagatiko indarkeria-kasuak eta indarkeria instituzionalaren kasuak tratatzeko, hautemateko eta haietatik babesteko prozesuak hobetzea.

²⁸ Hemen kontsulta daiteke Fekoorren eta Bilboko Udalaren esperientzia: <http://www.fekoor.com/noticias/2014-02-14/ayuntamiento-bilbao-fekoor-firman-protocolo.html>

- Dekretuak eta hitzarmenak aldatzea erakunde ezberdinek hainbat desgaitasun edo problematika dituzten emakumeak hartzeko aukera izan dezaten eta indarkeriaren biktimak diren emakumeei lehentasuna eman dakien baliabideak eta zerbitzuak eskuratzeko orduan.
- Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeek lehentasuna izatea kasu bakoitzerako baliabideak eta gizarte-zerbitzuak eskuratzeko (1/2004 Lege Organikoaren 28. artikulua estropolazioa: genero-indarkeriaren biktimak lehentasunezko kolektibo izango dira etxebizitza babestu eta nagusientzako egoitza publikoetan; hala, lehentasunezko sarbidea izango dute eguneko zentroetan, zentro okupazionalen edo desgaitasuna duten pertsonentzako egoitzetan)

4.2 ESPEZIFIKOAK

4.2.1. ENTZUMEN-DESGAITASUNA DUTEN EMAKUMEAK²⁹

- Indarkeriari buruzko informazioa banatzea gorrentzako formatu irisgarrietan eta egokituetan, besteak beste, keinu-hizkuntzako formatu bisualetan eta irakurketa errazterako testu egokituen bidez.
- Mezu idatziak bidaltzea eta jasotzea ahalbidetuko duten telefono-zerbitzu eta -sistemak gaitzea (whatsapp, telegram, sms) indarkeria-egoerak artatzen dituzten zerbitzu guztietan.
- Begitza magnetiko eramangarri eta FM igorlez hornitzea indarkeria-egoerak artatzen dituzten zerbitzuak.
- Zerbitzu guztietan keinu-hizkuntzako interprete bat eskatzeko aukera ikusgai jartzea³⁰. Zaintza-zerbitzuak gaitzea ohiko ordutegietatik kanpo artatu behar diren larrialdi-kasuetarako.
- SVisual sistema (Espainiako keinu-hizkuntzan bideo bidezko interpretazioa jasotzeko zerbitzua³¹) erabiltzea eta eskuragarri dagoela zabaltzea emakume gorren eta administrazioaren arteko komunikaziorako. SVisual zerbitzua ezartzea genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeei arreta eskaintzeko sisteman.
- Arreta psikologikoko zerbitzua emakume gorren beharrezanetara egokitzea³². Emakume gorrek ezaugarri linguistiko eta kultural propio eta bereziak dituen komunitate baten kide direnez,

²⁹ Informazio gehiagorako, kontsultatu Espainiako Gorren Konfederazio Nazionalaren Emakumeen Batzordeak editatutako *Guía para profesionales ante la violencia y los malos tratos a mujeres sordas*: <http://www.psicosocial.net/grupo-accion-comunitaria/centro-de-documentacion-gac/areas-y-poblaciones-especificas-de-trabajo/genero-violencia-contra-las-mujeres/633-guia-para-profesionales-ante-la-violencia-y-los-malos-tratos-a-mujeres-sordas>

³⁰ Euskal Gorrakek keinu-hizkuntzako interpreteen doako zerbitzua eskaintzen du Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko hitzarmen bati esker. Eskuragarri dago astelehenetik ostiralera 8:00etatik 20:00etara, baina arrunta eta eskatu ahalakoa da, eskabidearen sarrera-ordenaren arabera. Ez du larrialdi-egoerarik estaltzen.

³¹ http://www.svisual.org/fun_oye.html

³² Bilbao-Basurtu ESlan badago genero-indarkeriaren eta keinu-hizkuntzaren arloko prestakuntza duen psikologo bat.

ezaugarri horietara egokitutako arreta psikosozialerako zerbitzu irisgarriak egon behar dira gorren elkarte-mugimenduaren parte diren erakundeetan; izan ere, hori da emakume gorrek informazioa eskuratzeko darabilten informazio-iturri nagusia. Dena dela, arestian aipatutakoa ez da ghetto gisa ulertu behar, arreta integral eta irisgarri gisa baizik

- Sustatzea keinu-hizkuntza menderatzen duten profesionalak egotea zerbitzu mediku, sozial eta polizialetan, besteak beste. Zehazki, bultzatzea osasun-zentro bakoitzean ezagutza horiek dituen pertsona bat egotea, emakumea nahitaez kontsultara norbaitekin joatera behartuta egon ez dadin. Sistema informatikoan, gorrak identifikatzeko sinbolo bat txertatzea³³.

4.2.2. IKUSMEN-DESGAITASUNA DUTEN EMAKUMEAK

- Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazio-dokumentuak tinta handituko, brailleko, soinu bidezko eta webgune irisgarrietako formatuetara egokitzea. Aholkua eskatzea ONCeri.
- Indarkeriaren biktimei arreta emateko espazio publikoakitsuak diren edo ikusmen-desgaitasun larriak dituzten emakumeen beharretara egokitzea Braille seinaleak jarritz eta arkitektura-oztopoak ezabatuz. Aholkua eskatzea ONCeri.
- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta ematen dieten profesionalen pertsonaitsuak eta ikusmen-desgaitasuna dutenak tratatzeko prestakuntza ematea.
- Aintzat hartzeaitsuak eta gorrak diren emakumeen komunikazio-premia bereziak, eta gida-interpretak edo bitartekariak izateko beharra, baita artatzen dituzten profesionalen prestakuntza jasotzeko duten beharra ere.

4.2.3. ADIMEN- ETA GARAPEN-DESGAITASUNA DUTEN EMAKUMEAK

- *FEVAS Plena Inclusión Euskadi* mugimendua aintzat hartzea ordezkartza-kontuetarako eta ekarpen teknikoetarako.
- Politikak garatzerakoan eta esku hartzeko zerbitzuak sortzerakoan, aintzat hartzea elkarte-mugimendurako erreferentziako ereduak: FEVASek laguntza-sistemako oinarritzko osagaietan eta pertsonen zentratutako ereduak aplikatzen du, bizi-kalitatearen eta eskubideen bermearen ereduak.
- Aintzat hartzea elkarte-mugimenduan tratu ona eta tratu-txarren prebentzioa sustatzen duten jardunbide onak (*FEVAS Plena Inclusión Euskadi*, adibidez «El enfoque ético del maltrato a las personas con discapacidad intelectual y del desarrollo» ikerketatik eratorritako liburua, irakurketa

https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/obiba_com_biba/eu_def/adjuntos/BIBA3.pdf

³³ Arreta euskaraz jaso nahi duten pertsonekin egiten den bezalaxe.

errazeko «Háblame del maltrato» izeneko gida eta profesionalei prestakuntza espezifikoa ematea (Gorabideren Etika Batzordea).

- Adimen-desgaitasuna duten emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-balioak sustatzea³⁴.
- Adimen- eta garapen-desgaitasuna duten emakumeen banakako eta taldeko ahalduntzea ahalbidetzea (norberak bere burua den bezala maitatzea)³⁵.
- Ekintzak sustatzea adimen-desgaitasuna duten emakumeek osasunerako sarbide hobea izan dezaten.
- Adimen-desgaitasunik gabeko Asperger nahasmendua duten emakumeen kasuan, informazioa egokitu behar da haiek mundua ulertzeko duten modura, baliabideak eta zerbitzuak eskuratzeko aukera izan dezaten, kontuan hartuta gizarte-ulermenteko zailtasunak dituztela, baita norberaren zailtasunak hautemateko ere, eta kanpaina publiko ez pertsonalizatueta haien burua ez dutela islatuta ikusten.
- Adimen-desgaitasuna duten emakumeen beharretara egokitutako informazio-materialak editatzea, irakurketa errazeko formatuan³⁶. Prestakuntzarekin batera zabaltzea.
- Adimen-desgaitasuna duten emakumeak sentsibilizatzea, eta prestakuntza eta jarraibideak ematea indarkeria-egoerak identifikatzeko eta horien aurrean jarduteko. Adimen-desgaitasuna duten gizonei jokabide biolentoak identifikatzeko prestakuntza ematea.³⁷
- Prebentzio- eta arreta-zerbitzuak (arreta psikologikoko zerbitzua, adibidez) adimen- eta garapen-desgaitasuna duten emakumeen beharretara egokitzea.
- Ikasteko eta ulertzeko zailtasunak dituzten emakumeekin sexu-abusuei buruz hitz egitea.
- Bermatzea ulertu dutela beren burua defendatzeko eskubidea dutela³⁸, eta hori egiten irakastea.
- Bermatzea ulertu dutela konfiantzazko pertsona batengana jo dezaketela norbaitek ukituak eginez gero, tratu txarrak ematen badizkiete edo beraietaz aprobeztatzen badira.

³⁴ Emakumeen Sailak eta Valentziako Erkidegoko Inklusio Planeko Emakumeen eta Genero Berdintasunerako Sailaren aholkua.

³⁵ Emakumeen Sailak eta Valentziako Erkidegoko Inklusio Planeko Emakumeen eta Genero Berdintasunerako Sailaren aholkua.

³⁶ Badago liburuxka bat Madrilgo Erkidegoan: «Violencia de género y mujeres con discapacidad intelectual»:

http://www.plenainclusionmadrid.org/wp-content/uploads/2015/08/LF_guiaviolencia.pdf

³⁷ Horrekin zerikusia duen esperientzia bat jarri da martxan Madrilgo Erkidegoan. Hemen kontsulta daiteke:

http://repositoriocdpd.net:8080/bitstream/handle/123456789/988/Art_VillaroG_DiscapacidadIntelectualViolencia_2012.pdf?sequence=1

³⁸ Tratu txarrak ez jasaten lagunduko dieten jokabideei buruz ari gara.

- Oso egokituta dagoen protokolo bat egitea tratu txarren seinaleen aurrean. Argi uztea nori jakinarazi behar zaion egoera hori, aintzat hartuta tutorea izan daitekeela indarkeria horren eragilea.
- Langileei prestakuntza ematea eta horrelako egoerak kudeatzeko gaikuntza ematea.

4.2.4. GAIXOTASUN MENTALA DUTEN EMAKUMEAK

- Ezagutaraztea gaixotasun mentala duten emakume gehienek indarkeria sufritzen dutela edo iraganean sufritu dutela, eta, desoreka psikopatologikoa dutelako, indarkeriaren inguruan egiten duten adierazpena egiazkoa ez dela dioen mitoaren aurka borrokatzea. Esparru politiko eta tekniko guztietan behin eta berriz errepikatzea.
- Profesionalak sentsibilizatzea eta prestakuntza ematea.
- Sistematikoki sartzeari Osasun Mentaleko Sarean erakunde arteko protokoloak. Koordinazio soziosanitarioko protokolo bat diseinatzea eta esparru bakoitzean dauden protokoloak egokitzea.
- Koordinatuta lan egingo duten talde soziosanitarioak ezartzea. Gaixotasun mentala duten emakumeen aurkako indarkeria batzorde eta akordio soziosanitarioetan sartzeari.
- Erantzuna ematea harreraren eta indarkerian espezializatutako arreta psikologikoko baliabideetatik kanpo geratzen diren gaixotasun mentala duten emakumeei.
- Hezitzaileak dituzten pisuak gaitzea indarkeria salatzen duten eta gaixotasun mentala duten emakumeek beren seme-alaben zaintza eta jagoletza gal ez dezaten.
- Osasun-arloan, indarkeria-egoeretan espezializatutako arreta ematea gaixotasun mentala duten emakumeei. Horrez gain, aintzat hartzea kasu askotan indarkeria dela gaixotasun mental horren jatorria; aintzat hartu behar da tratamendu psikiatriko eta psikologikoan. Zentzu horretan, tratamendu bien artean koordinazioa egon behar da.
- Genero-indarkeriari lotutako adimen-nahasmendu larriak lantzen hastea arlo sanitarioan.
- Erreferentziako psikiatrak izendatzea, lehentasunez arreta emango dutenak indarkeriaren biktima diren emakumeentzako harrera-baliabideetan eta indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arreta psikologiko espezifikoko baliabideetan.
- Gogoan izatea emakumeari entzuteak berak eragin terapeutikoa duela bere horretan; horrexegatik da hain garrantzitsua profesionalak aliatu gisa ikustea.
- Emakumearen baimenarekin indarkeria-datuak erakundearen artean partekatzea ahalbidetuko duten sistemak garatzea.
- ESletan, ospitale orokorretan eta osasun mentaleko zentroetan gaixotasun mentala duten emakumeen aurkako indarkeria sartzeari.

- ESI guztietan sortzea indarkerian espezializatutako zerbitzu bat, zeinak profesional taldeei laguntza klinikoa emango baitie.
- Bikotekideen arteko indarkeria gizarte-zerbitzuek artatzen dituzten egoera ezberdinetako detekzio- eta balorazio-tresnetan sartzea –mendekotasuna, babesgabezia, bazterkeria-arriskua–, betiere argi bereiziz beste senitarteko batzuegandik etor daitekeen indarkeriatik.
- Genero-ikuspuntua Osakidetzako praktikan txertatzea, eta, bereziki, Osasun Mentaleko Sarean.
- Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko Erakundearteko III. Hitzarmenean osasun mentala sartzea.

4.2.5. DESGAITASUN FISIKOA ETA ORGANIKOA DUTEN EMAKUMEAK

- Baliabideak egokitzea laguntza pertsonala eskaini ahal izateko. Irigarritasunaren Legea betetzea.
- Bermatzea eragile juridiko eta polizial ezberdinak mugikortasun mugatua duten emakumeen etxeetara desplazatzen direla deklarazioa hartzeraz edo salaketa berrestera, emakumeak halakorik behar badu. Polizia-etxe guztietan irigarritasuna bermatzea eta tratua hobetzea.
- Aurreikusita izatea laguntza eta asistentzia pertsonaleko zerbitzuak izapide guztiak egiteko, baldin eta emakumeak laguntza behar badu, mugikortasun-baremoa aplikatu beharrik gabe, erreferentziako pertsona kasu guztietan bera izango dela bermatuz.
- Ikasteko tokiak eta lanpostuak egokitzea genero-indarkeriaren biktima izan diren eta dibertsitate funtzionala duten emakumeen independentzia ekonomikoa sustatzeko. Irigarritasunaren Legea betetzea.
- Irigarritasunaren Legea betetzea espazio publikoetan, bereziki aisialdi- eta topaketa-guneetan, oro har, eta ahalduztze-tailerrak eta emakumeen foroak egiten diren tokietan, zehazki.